

MAIXA GOIKOETXEARI ZILARREZKO DOMINA EMATEA

25 urte Euskaltzaindian

*Donostian, 2005eko azaroaren 25ean,
Gipuzkoako Foru Aldundian*

Andres Urrutia, euskaltzainburua

Hernanin jaioa dugu Maixa, bi anaia-arreba dira. Hernanin bizi da eta Jabier Bengoetxearekin ezkontuta dago. Bi alaba ditu: Nora, 6 urtekoa eta Amaia, 4 urtekoa; haur batzuk Parisetik omen datoz, baina badira urrutiagotik datozenenak ere (Txinatik). Bidaia zalea, mendizalea da, eskiatu zalea eta bizikletan ibili zalea (berarekin oraindik denbora luzez jardun nahi dugunez, biziki gomendatzen diogu beti eraman dezala kaskoa buruan).

1979an hasi zen Euskaltzaindiarentzat lanean, lehenago UZEIn aritu ondoren, eta 1980an egin zen langile finko. Juan San Martin eta Juan Mari Lekuona ordezkarien esanetara egon da, eta orain, Ana Toledo du buru.

Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkari-tza orain Hernani kalean dago, baina lehenagoko beste batzuk ere ezagutu ditu Maixak: lehenik, Gipuzkoako Foru Jauregian bertan, eta gero, Diputazioak berak Txurruka kalean zuen bulego batean.

Maria Pilar Lasarte izan du lankide, harik eta 2000. urtean jubilatuta zen arte.

Hasierako urteetan, izaten zuen nahiko lan Maixak orduan Euskaltzaindiak ematen zuen D Irakasle Tituluaren antolaketarekin, edota pertsona-izenez edo deituz eman beharreko azalpen edo ziurtagiriek. Gaur egun neurri batean aldatu egin dira ordezkari-tzako zeregin batzuk, D Irakasle Titulurik ez baitu ematen Euskaltzaindiak Hegoaldean, eta pertsona-izenen eta deituren arlo oso normalizatuta eta bideratuta dago, zorionez.

Gaur egun, batetik, Akademiak Gipuzkoan duen ordezkariaren laguntzaile-lanak egiten ditu, erakunde askotatik jasotzen diren ordezkariak behar bezala atenditzeko.

Beste aldetik, Erakundearen azpiegitura-lanetan dihardu: bulegoa bera eta bertako materiala zaintzeaz gain, batzorde askoren laguntzaile da: Gramatika, Literatura Ikerketa, Corpus, Hiztegi Batua... batzordeen artxiboa eramaten, bi-

lera-deiak eta materiala bidaltzen, batzordekideei deitzen, bazkaltokia bilatzen eta erreserbatzen. Euskaltzaindiak osoko batzarra Donostian egiten duenean ere, berak egiten du erreserbarako gestioa Gipuzkoako Diputazio honetan, eta batzarrerako materiala ekartzen eta eramaten laguntzen Idazkariordeari. Ez da zalaparta zalea, eta bai ixila eta langilea.



Laburbilduz, Euskaltzaindiak lan akademikoa egin ahal izateko gauzatxo asko –askotan begiraturik ere ematen diegunak– egiten dihardu Maixak, eta 25 urte gurekin lanean ari dela eta, euskaltzainok omenaldi hau eskaintzen diogu, esker onez, eta Akademiaren zilarrezko domina ematen.

Mila esker, Maixa, Euskaltzaindiaren izenean.